

## Literatura →



Pasarte hautatua

Voltaire  
'Gutun  
filosofikoak'

Uste izan dut herri hain apartaren doktrinak eta historiak gizaki zentzudun baten jakinmina mereziko luketela. Argitasun bila Ingalaterrako kuakero ospetsuenetariko batengana jo nuen, zeinak, merkataritzan hogeita hamar urte eman ondoren, bere ondasun eta nahikundeie mugak jartzen jakin baitzuen, Londres inguruko landetxe batera erretiratu. Bila joan nintzaion bere bakarlekura; etxe txiki bat zen, baina ongi eraikia, txit garbi eta apaindurarik gabea. Kuakero hori inoiz gaxotu gabeko agure sendoa zen, ez baitzuen grinarik ez neurrigabekeriarik ezagutu: nire bizitzan inoiz ez dut berea bezain itxura nobleagorik eta erakargarriagorik ikusi.

## GUTUNA (HASIERA)

- **Egilea:** François Marie Arouet *Voltaire*.
- **Itzulpena:** Jon Sodupe.
- **Urtea:** 1995.
- **Argitaletxea:** Pentsamenduaren Klasikoak.
- **Aurkezpena:** Aste honetan albiste izan da Voltairer idatzitako hamalau gutun orain artean ezezagun agertu direla, Ingalaterrako aristokraziarekin zituena harremanen lekukotasuna ematen dutenak. Voltaireren hainbat gutun euskaratu zituen Jon Sodupek, Pentsamenduaren Klasikoak argitaletxearen bildumarako, *Gutun filosofikoak* izenburupean. Goiko testua liburu hartako lehen gutunaren hasiera da.

## Hirudia

Mikel H. Abaitua  
Idazle eta irakasleaTxillardegia, haizeaz  
bestaldean

Joan den astean Txillardegia hil zela jakin nuenean, oso hunkituta gelditu nintzen. Azken egun hauetan hark merezitako ditiranbo eta laudorio anitz idatzi diren arren, ezin dut ekidin nire omenalditxoare egitea. Artikulugile guztiek azpimarratu duten bezala, sinestezina da zelako lan handia egin zuen Euskal Herriaren eta Euskal kulturaren alde, baina niri, batez ere, haren oroitzen sotalak etortzen zaizkit burura, gogorapen gizatiarrak eta arruntak. Adibidez, nola jo zidan adarra Aberri Egun batean nire abertzaletasunari epelegi iritziz, edo zein umilki ematen zigun arrazoia azterketa-zuzenketaren bat erreklamatzera joaten gintzaizkionean.

Hain zuzen ere, erbestetik itzultitakoan, frankismo osteko lehen urteetan, gure irakaslea izan zen Deustuko Unibertsitatearen donostiar campusean. Ni orain naizen baino gazteago zen bera orduan, gezurra badirudi ere, eta beti gogoratuko dut orduko itxura ia gazte harekin. Ilusionatuta sentitu ginen aurreko urtean irakurritako *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren egile famatua gure irakaslea izango zela esan zigutenean. Alabaina, ez zigun literaturarik irakatsi zoritxarrez, euskal fonologia baizik. Ingeniaritza, literatu-

ra, hizkuntzalaritza eta soziolinguistika jorratu zituen, bere lan politikoaz gain. Ez dago jende eskoren esku haren gaitasun intelektuala. Irakasle saiatu eta maiztagarri bat bezala gogoratzen dut, baina nahiko despistatua batzuetan. Bezperan emandako lezio berbera errepikatzen zuen maiz samar, eta guk ez genion ezer esaten nahasmenaz, bihurri samarrak izaki.

Frankismo osteko urte haie-tan unibertsitatera bere autozaharrean nola etortzen zen

Euskal kulturaren alorrean hark irakasle gisa eman zigun lekuko zuzenari jarraipena ematen saiatzen gara, maila apalagoan bada ere, eta eskerrak eman behar dizkiogu Txillardegiri euskararen munduan eskuzabalki egin zuen guztiagatik

gogoratzen dut, Seat 1450 edo 1500 bat, oker ez banago, eta garai hartan poliziak oraino bakerik ematen ez ziolako, zenbait egunetan unibertsitatean ez zela agertzen ere ez zait ahaztu. Jakina, zorionez ez zuen beti euskal fonologiak soilik hitz egiten, literaturaz eta bere bizipenez ere hainbat pasadizo kontatzen zizkigun. Adibidez, hasieran kultur taldea izateko jaio zen ETAre izena berak proposatu zuela beste askoren artean. Haietako bat, kontatu zigunez, ATA izan zen (Aberria Ta Askatasuna), izena erabakitze-ko bileran gaitzetsi egin ziotena, *ata* zenbait euskalkitan *ahatea* delako. Berak proposatutako beste akronimoak ez ditut gogoratzen, zoritxarrez.

Gauza jakina denez, ez zuen asko iraun ETAn. Gure irakaslea izan zen garaian aski moderatua iruditu zitzaidan. Beste batzuekin batera ESB (Euskal Sozialista Biltzarra) alderdia sortu zuen, baina antimarxistatzat zuen bere burua, ezkertiarra izanik erraza ez zena orduan. Gero, Herri Batasunean hasi zenean, guztiz harrigarria egin zitzaidan gure eskoletan hain lasaia zen irakasle hark nolako hitzaldi sutua eman zezakeen milaka pertsonaren aurreko mitin batean. Zur eta lur utzi ninduen ozenki eta indar handiz esan zuenean

agian batzuk harritu egingo zirela bera han ikusteagatik, baina bera beti egon zela han.

Maiz entzun genion euskarak eraman zuela abertzaletasunera, eta gauza nabaria da beti jarri zuela euskal kulturarekiko maitasuna politikaren aurretik. Horrek beste ezerk baino hobeto esplikatzeko du Txillardegia zein mugimendu edo alderditan egon edo sartu zen eta nondik irten edo bota zuten. Hori dela-eta, itxuraz ez da ulertzen, baina oso ondo entelegatzen da, bestalde, zergatik ez zuten inoiz Euskaltzaindian onartu, ondikoz (euskara batuaren lehen sortzailetako bat izan arren). Hiru aukera ukan zituen, eta lehenengoa izan zen sendoena ziur aski, erbestetik etorritakoan. Baina Patxi Altunarekin lehiatu behar zuen horretarako, eta berak ikasgelan esan zigunez, ez zion euskaltzain oso izatea oztopatu nahi unibertsitate hartan lan egitea eskuzabalki bideratu zion pertsonari.

Txillardegiren euskara batuerako hasierako proposamena, teorikoa eta praktikoa, garai hartako guztietatik orekatuena eta onena iruditu izan zait urteen iragatearekin: bere hasierako liburuetan Sebastian Mendiburuaren prosaren dotorezia handiaren oihartzun sendoa suma daiteke, lapurtar maisuenarekin batera.

Sarritan gauza askotan sintonia ezberdinetan egon arren, aitortu behar dut azken urteotan nire harekiko mirespena handitzen joan dela nabarmenki, zahartzen direnean gurasoekin gertatu ohi zaigun moduan. Euskal Kulturaren alorrean hark irakasle gisa eman zigun lekuko zuzenari jarraipena ematen saiatzen gara, maila apalagoan bada ere, eta eskerrak eman behar dizkiogu Txillardegiri euskararen munduan eskuzabalki egin zuen guztiagatik.

# iragarkilaburrak.com

euskarazko iragarki laburren ataria

## egingo al dugu tratua?

zerbait bilatu edo iragarri nahi baduzu

*zabalik duzu gure leihoa*

Orain, iragarkia erakusteko aukera berriak dituzu:

- Eguneko iragarkiaren erakusleihoa
- Nabarmendutako iragarkien atala
- Iragarkian bideoa txertatzeko eremua
- Gehien ikusitako 10 iragarkien zerrenda

▪ Sakelakotik sartzeko leihoa ere zabalik

Webgunean eta \*papereko edizioan, larunbatero BERRIekin.